



liburua

Izenburua: 'Piraten eskola'.**Egilea:** Agustín Fernández.**Itzulpena:** Fernando Rey.**Marrazkiak:** Luis Filella.**Orrialde kopurua:** 159 orrialde.**Argitaletxea:** Giltza.

Agustín Fernández

Idazlea

«Irudimenaren aldeko aldarria da liburua»

Euriaren erruz, eskola maldan behera abiatu da, ziztu bizian, eta itsasoraino heldu da. Egoerak hala behartuta, eskola piraten itsasontzi bihurtu da... Fantasiaraz beteriko istorio horrekin Edebe argitaletxeko Haur Literatura Saria eskuratu du Agustín Fernández idazleak.

Piraten eskola hau berezia da.

Bai, halaxe da. Hipotesi fantastiko baten istorioa kontatzen da liburuan: euri asko egingo balu eta eskola herriko leku garai ba-

tean balego, zer gertatuko litzateke eskola maldan behera abiatu eta ibairaino iritsi ostean, daraman ur emariagatik, itsasoraino iritsiko balitz? Zer gertatuko litzateke ikasle eta irakasleekin? Alegiazko egoera batetik abiatuta, eskolako errealitateari buruz ironikoki hitz egin dut liburuan. Liburua, azken batean, irudimenaren aldeko aldarria da.

Haurren ahaleginari esker, baina, gauzak konpontzen dira.

Piraten itsasontziaren barruan askotariko abenturak izango dituzte ikasleek eta irakasleek. Amaieran, ordea, errealitatea bere hartan geratuko da.

Irudimena erabiliz bidaiatu daitekeela erakutsi duzu.

Beste mundu bat posible da, eta, aldatzea posible izango balitz, irudimena beharko



litzateke beste mundu batean pentsatzeko eta beste errealitate bat eraikitzeko.

Haurrei irudimena erabiltzeko eskatzen al diezu?

Haurrentzako diren literatura-lanak ez dituzte zertan gutiz sinetsi. Istorio erakargarria, berezia eta errealitatea beste ikuspegi batetik ikusaraziko dion zerbait idaztea da literaturaren zeregin nagusia.

Nolako liburua da 'Piraten eskola'?

Irudimen kritikoa duen liburu bat dela esango nuke nik. Errealitateari buruz hitz egiten dut, baina benetako errealitatean gerta ezin daitezkeen gauzetatik abiatuta. Hala, irakaskuntzako metodo batzuei buruzko eta helduen munduari buruzko ikuspegi ironikoa eta umoretsua eskaintzen dut.

Liburuarekin Edebe argitaletxearen Haur Literatura Saria irabazi duzu. Espero zenuen saria?

Lehiaketa batera aurkezten zaren aldiro, irabazteko itxaropenarekin egiten duzu. Baina, epaimahaian egon naizen aldetik, badakit lehiaketaren amaierara iristen diren liburuak merezi duten istorioak direla. Lehiaketa irabaztea azken batean zorte kontua dela. Kasu honetan, zortea nire aldekoa izan da.

liburua

'Zuk-Zuk jaunaren alfabeto berria'

Zuk-Zuk jaunaren alfabetoa alfabeto berezia da, alfabeto ez ezik ipuina, asmakizuna eta jolas bat ere badelako. Alfabeto honetan letrek nortasun dute, eta maiz aldatzen dira aldarrez. Hala, A hizkia aparta eta alaia izan daiteke,

baina, tarteka, alua ere bada. B, aldiz, baketsua izan daiteke, baina baita baldarra eta bekaiztia ere. Eta Z hizkia, zoragarria izan arren, zomorroa ere izan daiteke eta zalantzaraz betea egoten da maiz. Bai alfabeto berezia Zuk-Zuk jaunarena.

Bernardo Atraga

Argitaletxea: Elkar.

diskoa

'Hamaika koloretan dantzan'

Ane Monna, Oskola eta Karramarroi maskoten *Hamaika koloretan dantzan* ikuskizunaren diskoa kalean da.

Amama Pantxikaren altxor ezkutua antzezlanaren joan den astean estreinatu zuten. Orain, ikuskizun berria herriz herri eskaintzen ariko diren arren, *Hamaika koloretan dantzan* ikuskizuneko doinuez gozatzeko aukera izango duzue oraindik. Askotariko erritmoak nahasten dira diskoan, eta, hala, munduko beste herri eta kulturak ezagutzeko parada izango duzue. Guztira, 14 kanta ditu diskoak.

Argitaletxea: Zenbat Gara elkarte.

